



LIBURUA

Hausnartzeko gonbidapena



EUSKAL HERRIA 2050 ASKOREN ARTEAN

GATUZAIN, 2003

ARITZ GALARRAGA

Urtea bukatzen delarik ohikoak izaten dira atzera begirako, balantze, zerrendak. Zer esanik ez bukatu den urteak hamarkada aldaketa badakar. Gutxiago izaten dira urte berria hastearekin batera aurrera begirako, iragarpen, proiektioak. Baina literaturak badu hor bide bat, etorkizuna irudikatzea, sarri distopia forman egiten dena, hau da, fikziozko etorkizun aski oker baten errepresentazioan. Ez dira asko halako literatur emaitzak gurean, eta akaso horregatik da ohargarri *Euskal Herria 2050* liburu kolektiboa.

2003an argitaratua, gisako bildumek izan ohi duten nahas-mahasa da emaitza, bai egileei dagokionez –ezagunak zein ezezagunak biltzen ditu–, bai testuei dagokionez –gehienak dira ipuin,

baina bada poema, are komikirik–, bai, zer esanik ez, liburuko testuen interesari dagokionez. Egile batzuk osoki lotzen zaizkio argitaldaria jarritako erronkari: “Gai honen inguruan zure ikusmoldea eta proiektioak libreki lantzea eskatuko genizuke”. Beste batzuk gehiago azken esaldi honi: “Edo zuk nahi duzun beste edozer”, –Gotzon Garateren ipuinak zer du gure etorkizuna irudikatetik?–. Gaiari gehien lotzen zaizkionak dira interesgarrien, akaso irakurlearen espektatibengatik. Itxaro Bordarena ez da biribila, baina kurioski agertzen digu giza alienazioa ardatz duen etorkizun negatibo bat. Biribilagoa da Iban Zalduarena, biribilena –ipuin honegatik bakarrik mezezi du bildumak–, migrazio desberdinak hizpide. Eneko Bidegain eta Maritxu

Lopeperenek, ustez 2050ean kokatuta egonagatik, antz handiegia dute dagoneko intuitzen dugun munduarekin.

Baina, urtea aldatu dugun honetan, hamarkada, batek bakarrik aipatzen du abiatu berri duguna, XXI. mendeko 20ko hamarraldia. Luzien Etxezaharretak, ez oso baikor noski: “2020 urte horietan ikaragarriko izurriteek jo zituzten munduko bazter batzu”. Eta ez osasun arloan bakarrik: “Euskal Herrian gertatu zen talde armatu batzu sortu zirela (...) Madrile eta Parise erasotuak izan ziren arma kimikoen bidez (...) Gipuzkoa osoaren deportatzea izan zen kapitulu lazgarrienetarik”. Ipuin distopikoa hau ere –hori desio, behintzat–, eta horregatik gure orainaz ere hausnartzeko gonbidapena. ●